

Aurrekari juridikoak labur:

- 1985ko irailaren 27an Castro del Río-ko udaletxean (Kordoban) emandako sesio plenarioan onartzen dira pixu eta eraikin unifamiliarren gaineko helburu fiskalak ez dituzten arbitrioen ordenantza erregulatuak.
- 1988ko azaroaren 25an auto baten bitartez administrazio auzien 956/86 errekurtoa onartzen da.
- 1989ko urtarrilaren 12an Andaluziako Lurralde Auzitegi Administrazio Auzien Salako Presidentearen idatzi bat jasotzen da Auzitegi Konstituzionalaren Erregistro Nagusian aurrez aipatutako autoaren aurka argudiatuz.
- Urte bereko apirilaren 18an adosten da 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 390. artikulua aurka konstituzio-kontrakotasun galdera bideratzea konstituzioaren 133.1, 133.2, 31.1 eta 31.3 artikuluen urraketa ematen den edo ez ikusteko.

Aipatutako ordenantza fiskala onartzearen arrazoia da Castro del Río-n pixu eta eraikin unifamiliar kopuru handi bat denbora luzez itxita egon direla jabeek horrela nahi izan dutelako; horrek baldintzatu du eraikin horien mailakako edo pixkanakako suntsiketa Espainiar hiritar guztiek etxebizitza baterako duten eskubidea oztopatu duelarik, konstituzioko 47. artikulua urratuz, alegia. Hori dela eta, Castro de Río-ko udaletxeak defendatzen du arbitrioarekin lortu nahi dena dela eskari eta eskaera orekatu eraikinak erabiltzen ez dituzten jabeei salmenta edo alokatzea burutzera bultzatuz.

Bestalde, Administrazio Auzien Salak bere horretan jarraitzen du, ordenantza horren oinarritzat jotzen duen 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 390. artikulua gaineko konstituzionaltasun galdera egin behar delakoan. Izan ere, bere aburuz artikulua hori Espainiar Konstituzioko 133.2 eta 1 zein 31.1 eta 3. artikuluen aurkakoa litzateke. Hori arrazoitzeke esaten du 390. artikulua udaletxeei helburu ez fiskalak dituzten tributuak ezartzeko onartzen dizkion ahalmenak oso muga gutxi jartzen dizkiola hauei; eta horrek zalantzan jartzen duela bere balioa konstituzioko 133.2/1 eta 31.1/3 artikuluen urrapena urratu ditzakeelako edo urratzea erraztu dezakeelako. 31.3 artikulua arabera soilik ezarri ahalko dira izaera publikoko ondare prestazioak legeak ezarritako baldintzak jarraituz.

Alegazioetan Ministeritza Fiskalak konstituzio kontrakotasuna deuseztatzen du argudiatuz udal tributuei dagokonez, ondarearen erreserba hedatuko dela legeak zehazten duen punturaino, baina aurreikusita ez dauden zergen eraketaren inguruan ez dago ela zehaztasunik eta beraz udalek dutela askatasuna horren inguruan jarduteko, eta baita tributuen mota, oinarri eta bestelako oinarritzko elementu konfiguratuak inguruan erabakitzeke .

1989ko urtarrilaren 23ko probidentziaren bidez, Auzitegi Konstituzionalaren lehenengo salak erabakitzen du kasua edo konstituzio-kontrakotasun galdera tramitera onartzea.

1989ko otsailaren 9an aurkeztutako idatzi baten bitartez Senatuaren Presidentearen prozeduran laguntzeko edo kolaboratzeko konpromezua hartu zuen LOTC-ren 88.1 artikulua eraginpean.

Estatuko Fiskal Nagusiak, 1989ko otsailaren 14an aurkeztutako bere alegazioen idatzian, azaltzen du auzian dagoen artikulua ez dela konstituzioaren aurkakoa. Hori argudiatzeko dio planteatutako kasuak ez duela ezer ikustekorik ezarritako tributuaren berdintasun edo garapenarekin, eta ez duela konfiskazioaren modalitate inpliziturik suposatzen. Bere

aburuz, konstituzioko 31.1 artikulua ez da urratzen udal tributuek, eta bereziki 390. artikuluan aipatzen direnak (tributuek ez fiskalak), lege erreserbaren eraginpean daudelako, eta lege bitartez daudelako ezarriak, zeinetan euren oinarriko elementuak zehazten diren. Gehitzen du, jursiprudenziak lege erreserbaren interpretazio lauso bat ahalbidetzen duela, konstituzioak eskatzen duena delako legearen bitartez ezarri behar dela zerga eta zehaztu behar duela zein diren bere oinarriko elementuak, lege hori ez betetzea suposatzen duen zergaren ordenantza bat aurrera eramatea posible egiten ez duelarik. Bestalde, esaten du hori ez berdin bete behar udal tributuei dagokionez, izan ere hauen inguruan esaten du legeak ezartzen duela Estatuko tributua baina baimentzen duela lekuko tributua (Tributuen Lege Orokorren bitartez) horretarako esaldi hau erabiltzen duelarik <las Provincias y los Municipios podrán establecer y exigir tributos dentro de los límites fijados por las leyes>. Ondorioz, esan daiteke lege erreserbak ezin duela esanahi bera eduki estatuaren zergei edo udal zergei dagokionez, lehenengoak lege bitartez eta bigarrenak Lekuko Ordenantzen bidez ezartzen baitira.

Beste alde batetik, Estatuko Abokatuak bere alegazio idatzian eskatzen dio Auzitegi Konstituzionalari konstituzio-kontrakotasun galdera gaizki planteatuta dagoela. Hori azaltzeko, batetik argudiatzen du 390. artikulua ez derogatu dagoela eta baita hori erregulatzen duen ordenantza. Eta ez hori bakarrik aipatzen du ere galdera egitean jada ez zegoela indarrean. Gauzak horrela, dio, ezin da onartu, konstituzio-kontrakotasun galderak indarrean dauden arauen gainean planteatu behar direla aipatzen duelako.

Auzi-jartzaileen aburuz, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu legegileko 390.artikuluan xedatutakoak Espainiar estatuko Konstituzioaren 133.1, 133.2, 31.1 eta 3. artikuluek urratzen ditu, horregatik, Konstituzio kontrakotasun auzia zabaltzen da. Organo judicial eskatzaileak esaten duen moduan, lege honek Udaletxeei baimentzen die helburu fiskalik gabe zergak eskuratzea, funtsezko oinarriak zeintzuk diren finkatu gabe, ondorioz konstituzionaltasun galdera plazaratzen dute aipatutako legearen erruz.

Bestetik, Estatuaren abokatuak Konstituzio kontrakotasun galderari ez dio inolako zentzurik ikusten, **erabilitako prozedura egokia ez** izatea leporatzen die auzi-jartzaileei, zeren eta, aztertua izango den araua **indargabetuta** dago. **Helegitea Auzitegian erregistratua izan aurretik ezeztatua** izan zen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen eskutik. Gehitzen du, momentu konkretu horretan indarrean dagoen legean ez dagoela araututa eztabaidatzen ari den gaia. **Castro del Rioko Udaletxeak onartutako ordenantza indargabetua geratzen dela lege berrian xedatutakoaren aburuz**. Estatuaren abokatuak salatzen du, udal arautegia onartu zenean aztertzen ari den legeak ez zegoela indarrean baizik eta abenduaren 30eko 3250/1976 Errege Dekretua, Konstituzioaren aurrekoa hain zuzen.

Auzitegi Konstituzionalak ondorioztatzen du, aztertzen ari den udal arautegia, garai hartan indarrean zegoen 3250/1976 Errege Dekretuaren 126.artikuluan xedatutakoarekin bat egiten duela, hau da, udaletxeak helburu fiskalik gabeko zergak ezartzea baimena dutela. Eta zerga hauek 1955eko arautegiko 473tik 475era artikuluetan ezarritakoaren arabera arautuko zirela. Beraz, auzitegiak ez dio inolako baliorik ematen aztertzen ari den auzi honi, zeren eta, udal ordenantza onartu zenean ezta ordenantzaren kontrako helegitea ezarri zenean, 781/1986 Errege Dekretu ez zegoen indarrean. Aipatutako lege honen 390. artikuluan araututako ez zen bete behar zeren eta momentu horretan ez zegoen indarrean, eta hau da auzi-jartzaileak eskatzen dutena. Auzitegi Konstituzionalak organo judicialaren errakuntza hautematen du.

Auzitegi Konstituzionalak epai gelaren Konstituzio Kontrakotasun auziaren oinarri sendo falta azaleratzen du. Bere jarrera indartzeko, EK 163.artikuluak eta AKLO 35.2. artikuluak aipatzen ditu. **Konstituzio Kontrakotasun galderak arauak kontrolatzeko mekanismo abstraktu bat bilakatzea saihestea dute helburu aipatutako bi artikuluak.** Auzitegiak 7/1985 Legearen itzalean onartu zirela argudiatzen du lehenago aipatutako 1955eko Legeko artikuluak eta 3250/1976 Errege Dekretuaren 126.artikuluak. Konstituzio Kontrakotasun auzia legeak arazteko prozesua da ez hemen nahi den bezala arauak arazteko prozesu bilakatu.

Honekin batera Auzitegiak gehitzen du, 1988ko Ogasun Lokalaren Legeak, aztertzen ari den Errege Dekretuaren 390. artikulua indargabetzen duela. Epaleek nabarmentzen dute, administrazioarekiko auzi prozesu honen helburua auzitan aritzea dela, Erregelamenduaren indargabetzea eta legearen baitan sortutakoaren tutela judiziala eskubide subjektiboari erreparatu gabe.

Auzitegiak kontrol abstraktuetan erortzeko beldurrez eta helegitearen fundamentu gabeziaren aurrean, Konstituzio Kontrakotasun auzia aintzat ez hartzea erabakitzen du.

Aztertu beharreko bigarren sententzian Auzibide Militarren apirilaren 13ko 2/1989 Lege Organikoan 468.artikuluaren xedatutakoaren arabera da, auzi-jartzaileen aburuz, Espainiar estatuko Konstituzioaren 24.1, 53.2 eta 106.1. artikuluen urratzeagatik. Sententzia honetako nondik norako nabarmenenak bakarrik aztertuko dira. Estatuaren **Abokatuak** Konstituzio Kontrakotasun auzia **eztabaidatzen ari den artikuluen inguruan mugatzeko** eskatzen du. Auzitegi Konstituzionalak atzera botatzen du eskakizun hau, Abokatuak aipatutako kasuak alde batera uzten ditu, antzekotasun eza argudiatuz. Bere eginkizuna **legea osotasunean aztertzea, Konstituzioaren kontrakoa den erabakitzeko.** Auzitegiak adierazten ez dela egia aztertu den arazoa erabakiaren onarpen eza bakarrik mugatu dela. Hain zuzen alderantziz izan dela onartzen du, errekursoaren izaera mixto argi eta garbi dago, Auzitegi Nagusiaren erabakiaren kontra zein Babes Ministerioarenaren kontra.

Fundamentu juridikoetan aipatzen da epaimahaiak onartzen zuela, artikula Administrazioak eta Tribunal orokorrek interpretatu zutela eta honekin auzi-jartzailearen babes judizial eskubidea urratu zela. Epaimahaiaren aburuz, hartutako jarrera arauaren interpretazio legal bakarra zenez, arauaren Konstituzionaltasun auzia planteatu zuen.